

Baleike

Zumaiaiko herri aldizkaria. 21. zenb. 1996ko otsaila. 100 pzta.



Patxangaren malkoak Erribera kalean

Erreportaia
**San Juan
Egoitza
ezagutuz**


Ze berri?

**Aurtengo
aurrekontuak
onartuta**

Ze berri?

**Inaugurazioaren
egunean barra
libre**

**Zumaiaiko Fototekak
utzitako argazkia**




ZORITXARREKO ISTRIPUA

Gutxi izan dira Zumaian hau bezelako istripu tragikoak. 1941eko otsaileko gau batean, juxtu duela 55 urte gertatu zen. Kontatzen dutenez zuhaitz baten erorketak gerarazi zuen trena eta gau hartan izan ziren haize bolada indartsuek bota zuten trena Urolara. Hogeitik gora hildako izan ziren, eta zaurituak ere ugari. Azken hauek inguruetako etxeetan jaso zituzten gau beldurgarri hartan.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**kutxa fundazioa
fundación kutxa**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Argitaratzailea



Zumaiaiko Udalak diruz
lagunduriko aldirakaria



BALEIKE HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

faxa: 861742

argitaratzailea ZUMAIKO GAZTE BATZORDEA

Ian taldea

Iratxe Aizpurua
Esther Martinez
Eneko Dorronsoro
Xabier Azkue
Igor Uranga
Josu Waliño
Gorka Zabaleta
Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

G.E.G., Natur taldea, Miriam
Romatet, Kepa Aizpurua,
Aintzane eta konpainia, Imanol
Manterola, Itxaso Urruzuno,
Txomin, Jon Ander Garcia, Josu
Egaña eta Arantxa Eizagirre,
Luis Mari Aizpurua, e.a.

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.
(Zubillaga - Oñati)

tirada: 800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

BALEIKEk ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako
esanen eta iritzien
erantzunkizunik.

Txikiteoa, ohitura edo ihesbidea?

Igor Uranga
"Mofli"



Hain errotuta degun ekintza hau gainbegiratzeko gogoia eman dit. Txikiteoa edo poteoa, zer da, zer mugitzen da honen inguruan? Beti entzun izan degu, gure herriko ohitura zahar bat dela, lagunene topagune bilakatzen dena. Oso ondo dago hau eta ideia erromantikoa da, baina egiazkoa? Jakina, denetarik egongo da, baina gazte nahiz helduengan ihesbide bat bihur daiteke.

Gure gizartean halako giza harremanak koadrila bidez ematen dira oro har, eta norberaren eginbeharrengatik asteburuetan elkarbiltzen dira soilik, txikiteoan. Txikiteoa egin, kargatu, ondo pasa eta agur, hurrengo astebururarte. Hau al da lagunene topagune? Hau azaleko harreman intraszendental da, egun hainbat tokitan jende askok praktikatzeko duena.

Ez da kritika bat, errealitatea da, inguruneari so egitea besterik ez degu. Txikiteoa kenduz gero, zer? Biluzik. Gabeziak, beldurak kanporatzen dira, benetako errealitatea gordinazaleratzen da. Ohituraren aitzakipean, ihesbidearen mamua ezkutatzeko degu.

Gutxiago edo gehiago, neurri batean edo bestean, horrela gertatzen da.

Ze berri?

**Barra berria
inauguratu
dute ... 9. orr.**



Pertsonaiak
**Nor zen
Aita Mari ?**
.....22. orria



**Festak
Ihauterietako
egitaraua.. 27 orr.**

Eta portadan, Patxangari azken agurra 9. orria.



PREMIAZKO TELEFONOAK:

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza.....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

Alkateari gutun irekia

Ion Albizu Agirrezabalaga

Alkate Jauna:

Duela gutxi herritarren gehiengoak berretsi duen legitimitea zalantzan jarri gabe, behin eta berriro harritzen naiz udaleko kontu askotan izan dituzun zenbait jarrera ikusita. Badakit Zumaia bezalako herri baten aurrekontuak ez duela mirariak egiteko aukerarik ematen; badakit Foru Aldundiaren eta Gasteizko Jaurilaritzaren laguntza behar dugula. Baina iruditzen zait goiko instituzio hauetara gutxitxo jotzen duzula, edo bestela ez zaituzte haintzat hartzen (portuaren kontuan izan ezik, honetan sartuko ez banaiz ere). Udal Polikiroldegian ez da ezer inbertitzen, edo oso gutxi, eta Zumaiako errealitatea ongi ezagutzen duzunez, jakingo duzu kirol instalakuntzak ez daudela herritarrek eskatzen dutenaren mailan. Polikiroldegiarekiko politika aldatzeko asmorik ba ote duzu? Noizko izango dugu igerilekua? Noiz izango ditugu kirolarientzat laguntzak, kirol jantziak, zapatilak...?

Kultur etxea da berehalako inbertsioa behar duen beste gune bat. Liburutegia ez dago behar bezala prestatua. Unibertsitateko eta ertainetako ikasle multzoak leku gehiago eta liburu hobeak

behar ditu. Agatha Christie-ren bilduma osoa dago, baina ikasleek *Mortadelo eta Filemón* baino zer bait gehiago behar dute. Ez dut liburutegi espezializatu bat eskatzen, ikasketa adar ezberdinetako oinarritzko liburutegi bat baizik. Liburuak pisura edo loteka ez, bestela erosteko prest al zaude? Kultur etxeak gaur egungo errealitate ekonomiko, sozial, politiko, ekonomiko, artistiko, filosofiko eta abarren eztabaida gune izan behar luke. Aprobeztatzen al da adar guztietako artista eta ikasleen multzo handia kultur etxean beren ikuspegia eskain dezaten? Ba al dago ekitaldi kultural, beka, bidaia, antzezlan, hitzaldi, informazio sexual eta abarren berri ematen duen aldizkako argitalpenik? Ba al dago INEMekin inolako negoziaketarik gazteen langabeziari konponbidea emateko? Eta gurekin senidetuta egonik gure laguntza jasotzen duten Saharako herrien egoerari buruzko informazioa? Trenen egoera berria ikusita, ba al dago udalaren aldetik Bilborantzako garraiobideen arazoa

konpontzeko inolako ahaleginik? Hauteskunde garaian bakarrik informatu behar al da herria?

Beharrezkoa da zure politika herritarrongana hurbiltzea, horrela zure gestioa nolakoa den jakin dezagun. Informazio falta izugarria dugu, eta udaleko oinarritzko kontuen berri izateko udaletxera joan beharra dagoela esateak ez du balio. Bidaia, beka, ikastaro, hitzaldi, mahainguru eta abar bilduko dituen aldizkako argitalpena egiteko ekimena zure gain hartu behar zenuke, gero herriko buzoietan banatzeko. Udal hau demokratizatu behar zenuke, eta sekretupean hartzen diren erabakiak eta gestioa ezkutatzeko dituen oligarkia horretatik atera ere bai. Ez zaitez politikak interesik ez duela dioen aitzakiaren atzean gorde, gero udaletxean komeni zaizun guztia egiteko. Urtea ongi hasteko 1996ko aurrekontua argitaratu behar zenuke, aurrean dituzun egitasmoak jakin ditzagun. Ez dizut beste munduko zer bait eskatzen, lege zehatz jasotzen duzun soldata hori ongi irabaztea, besterik ez. Aurrerantzean zure ahalegin demokratikoak nabiariagoak izatea espero dut.

Adeitasunez.

.....




HARAGITEGIKO, 15 - 1. TEL: 86 21 16

kukutz
SERIGRAFIA



- ★KAMISETAK
- ★KAPELAK
- ★TXISKEROAK
- ★TXANDALAK
- ★PAPELEZKO
- ★POLTSAK

Narrondo 8, 2. esk Tfnoa: 860569



Amertze

Erribera Kalea, 6
Telefona: 86 17 07
Fax: 86 17 07
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Gazteak sosik gabe

Zumaiako Gazte Batzordea

Ustekabeen harra-patu gaitu notiziak: 96rako Udal aurrekon-tuak onartu dira, bertan 7 milioi Udal Gaztedia Batzordeak hartzen ditu-elarik. Barkatu, ia 7 milioi. Ze 7 kilo horie-tatik, Ludotekak eta udaleku irekiek 6 milioi eramaten dituzte, gazte-diarentzat (edo 12 urtetik gorako gazteentzat) 96rako milioi bakarra dagoelarik. Izugarria!!

Badakigu honi zer erantzungo dioten: *"Ikas-taro, irteera eta ekintza batzuk antolatzeke nahiko diru badagoela, eta bestela kulturatik osatuko da falta dena"*. Noski! Baina Gaztediarentzat politika serio bat lantzeko ez da nahikoa! Drogen arazoari aurre egiteko behar den informazioa zabaltzeko eta alternatiba egokiak planteatzeko ez da nahikoa; gazteei zuzenduriko heziketa sexual bat garatzeko ez da nahikoa; langabeziaren arazoari aurre egiteko irtenbide, ikastaro eta aukerak aztertzeke ez da



nahikoa; gazteentzako informazio gune bat, topagune bat prestatzeko ez da nahikoa, antimilitarismoaz informatzeko ez da nahikoa, bekak eta laguntzak emateko, eta abar luze baterako ez da nahikoa!!

Hala ere, gaztedia-rekin lana egiteko, dirua baino gehiago behar dena borondatea da, eta nahiko argi dago Udalak ez duela asmorik Gaztedi politika serio bat lantzeko. Ludoteka bultzatuz nahikoa dela pentsatuko dute, eta egia da beharrezkoa dela Ludote-

kak horrelako diru partida bat izatea, baina zer gertatzen da 12 urtetik gorako gazteekin? Guk, ildo honetan lan egiteko prest gaudelako, Udalari proposatu genion Gaztedia Batzordean parte hartzea, hau herriko gazte talde guztien parte hartzera zabalik egon beharko litzatekeelako: ZGB, talde Antimilitarista, Algorri, Jarrai, EGI, Gazte Abertzaleak, eta abar, horrela, haurretaz gain gazteetaz ere arduratzeko.

Proposamen honi Udalak emandako

erantzuna betikoa izan zen: Ezetz. Noski, prest omen daude *«gazte guztiei irekitako behar hainbat bilera egiteko, eta beti ere beraien ideiak eta proposamenak entzuteko»*. Ah bai? Ba legislatura hasi zenetik (ekainetik, alegia) behin bakarrik bildu dira gazteekin, eta ez dakigu zer erabaki duten egitea orduan eman genien proposamen zerrendarekin, ez baitigute oharrik ere eman. Pare bat ikastaro antolatu dituzte, baina, zer gertatu da gainontzeko ekin-tzekin?

Amaitzeko, Zumaiako EAJk 95eko maiatze-ko hauteskunde munizi-paletan aurkezturiko programa elektoralean zioen zerbait gogorarazi nahi diogu: *«la cuestión no es qué hacer por los jóvenes»* sino *«qué hacer conjuntamente con ellos ante los problemas que tenemos planteados.»*

Ea noizbait hautes-kundeetan agindutakoa betetzen dezuen.

.....

**BELARDENDA
SIWA**



Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIXKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079



Habana
auto
Mekanika eta
karrozeria

Axular ibiltokia, 14 86 00 70
Zumaiak



Esther Aizpurua

Orduan bai ederki

Ez zenuen beste munduko itxurarik, agian orain ikusiz gero, edozein kale kantoitan elkarrekin topo eginez gero akaso ez zintudan begiratu ere egingo, ez nintzen orduan bezala asalaturik sentituko, baina...

orduan bai. Orduan bestelakoak ziren egunak, eta batez ere urteetako hautsa eta zikina zuten kristal haiek erakusten zituzten egunak. "Gure" asientotik, beti berbera hartzen nuen, sekulako bista zegoen: paol muturra urrutian, parroikia erdi-erdian, eta triki-traka hura gehitzean, paola eta arranpla geroz eta gertuago... inoiz gehiago ikusi ez dudana erretratoa. Herriak berak ere beste aurpegi bat erakusten zuen zurea ikusten nuen bakoitzean. Bi estazio geroago elkartzen gintuen, astiro eta gozo, zugana eramaten ninduen. Eskilarak igotzean zigarro piztu berria itzali, aldamenen eseri eta egun berri bat esnatzen ikusten genuen. Hitzik ez, hurbildu eta ezer esateko imintziorik ere ez, ezer ez. Ezer ez, eta dena. Baina trena mututu egin zuten, triki-traka gozo hura aspaldi ixildu zen, eta egunak beste era batera esnatzen hasi ziren. Oraingo kristelek ez dute lehengo egunsentirik erakusten, autobus azkar eta modernoak leihok itxiek garbiegi erakusten digute aurrez aurre duguna. Gehiegi aldatu da beiraz bestaldeko mundua. Urola zaharra oroitzapenen kutxan galdu da, paola ez dago ohi zuen leku eta moduan, eta inoiz gehiago ez dut arrantplara inguratzen ikusi, zu ere ez aspaldian. Edo agian elkar ikusi eta konturatzeke aurrera jarraitu dugu trenbiderik gabeko bide galduan. Orduan trenbideak elkartzen gintuen, ez zen bide bila aritu beharrik, alferrik arituko ginen, egunsentiko argiak eta kristal lausotuek ez zuten apenas ezer erakusten... orduan bai ederki.




Hilargi Linazisoro

Otsaila

Urte berria hasi
ta heldu da otsaila
hauze da Karnabal eta
Agedaren hila
Santa Agedan kantatzen
al zara abila?
bestela joango gara
aterkian bila

Nahiz ta ihauteritan
egon festa eskasa
jendea egongo da
nahiko aldrebesa
jendea ezagutzeko
guk daukagu presa
otsaila ondo hasi
ta urtea ondo pasa



ZUMAIA



AUTO-ESKOLA

- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeitian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018

20750 ZUMAIA



**inportaturiko erropa
eta artisautza**


Basadi 3 Zumaia

Laugarren intsumisoa epaitegira

Hilaren 8an,
12,30etan Haritz
Romanelli intsumisoa
epaituko dute Donostian.
Hau da epaitzen duten
laugarren intsumiso
zumaiarra.

Jakingo duzuenetz, intsumisoei egindako epaiketak tramite hutsak dira, epailearen erabakia aldeztatik hartuta dago eta epaiketak berak, bi minutuko (edo gutxiagoko) iraupena du.

Honen aurrean, orain arte baliogarriak izan diren ekintzak, ez dute dagoeneko oihartzun handirik, beraz zerbait ezberdina egiteko asmoarekin, eta Zumaian antimilitarismoaren inguruan dagoen egoera ikusita, mahaingurua antolatzea erabaki du "Gu Ez Goaz" Zumaiako



Haritzek badaki tramite hutsa dela.

Talde Antimilitaristak.

«Intsumisioa eta antimilitarismoa Zumaian» izenburua duen mahainguru horretan, herriko gazte talde ezberdinak elkartu nahi izan dituzte, arazoaren inguruan eztabaida dezaten.

Ez ahaztu, **otsailaren 2an** iluntzeko 8etan **Oxforden**.

AUTODETERMINAZIORANTZ TALDEA

Hurrengo otsailaren 9an, ostirala, gaueko 8etan bilera bat izango da **Oxford** aretoan, talde honen aurkezpena egiteko. Talde honek Autodeterminazioaren aldeko giza mugimendu indartsua sortzeko beharra ikusten du, edozein ideologi eta politika ikuspegi desberdinetako jendea batuz.

Mugimendu zabala, herritarra, demokratikoa eta independentea da, Euskal Herriari askatasunean bere etorkizuna eraikitzeko behar duen tresna berreskuratzeko: **Autodeterminazio eskubidea**.

laburrak

Larrialditako zerbitzua

Badirudi ahalegin handia egiten ari direla berriro ere larrialditako zerbitzua Zumaian izan dezagun. Oraingoan, Osakidetza arduratuko litzateke zerbitzu hau emateaz. Oraindik ezer ziurra ez dagoenez, hurrengo zenbakirako espero dugu notizi on hau ziurtatzea. Bitartean, ea ez geran gaixotzen!

125 urte Karmelitak etorri zirela

Azaroaren 26an beteko da urteurrena, baina hil honen 2tik hasiak dira ospakizunetan. Egun honetan Maria eta Jose ikastetxean ekitaldi bat izango da, eta bertan gimnasia erritmikoa, euskal dantza, koroa eta beste hainbat ekintza izango dira.

Presoak gose greban

Euska preso guztiak Euskal Herriratzea eskatzen duen kanpainaren barruan, Ixiar Arrizabalaga eta Patxi Aristi preso herritarrak Hil honetan ekingo diote 15 egun iraungo duen gose grebari.

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnua: 861160
ZUMAIA

Belardenda

Paki

OSASUN NATURALA



erribera 2
Tlf: 143156

ONCE

**JOXE
MANUEL**

**Kupoi batzuk
erosi eta ...**

ZORTE ON !!

Zumaia Bizirik-en enkartelada "Zumaiako Kirol Portua S.A."ren aurrean

Urtarrilaren 20an enkartalada bat burutu zuen Zumaia Bizirik taldeak, "Diru publikoa proiektu batentzat, zergaitik ez beste batzuk aztertzeke"



Basadi auzoan kokatzen da promotoraren bulegoa.

Bertan salatu zuten promotora honetan bi maketa erakusten dira, instituzio publikoek ordaindurik, pribatutzat saltzen dituzten enpresa baten aretoetan.

Hilabete batzuk badira bulego hau zabaltzen dela. Talde ekologistak dioenez "Gerrikoa estutu behar dugula esaten digute eta gastu sozialak eta kulturalak murriztu egiten dira. Bitartean Zumaiako Kirol Portua S.A.n ez da hori

egiten". Honetaz gain, duela urte bete kirol portuaren proiektuak jasotako "250 alegazio baino gehiagok, gaur egun erantzunik gabe jarraitzen dute, eta inork ez daki zehazki nola dagoen proiektuaren biderapen administratiboa".

Talde honen ustez izugarrizko dirutza gastatu da kirol portuaren kontura eta beste ideia eta proiektu batzuk, ingurunearekiko begirune gehiagokoak, bazterrean gelditu dira.

Julene Azpeitia sarien banaketa

Urtarrilaren 12an banatu ziren sari hauek, Edorta Jimenez idazle ezagunak 325.000 pezetako lehen saria jaso zuen, Iñaki Perez Armendia elgoibartarrak bigarren sariaren 150.000 pezetak eskuratu zituen bitartean. Zumaia onenaren saria Imanol Azkuek jaso zuen, 125.000 pezeta hain zuzen ere.



laburrak

Ihauterietako kartel lehiaketa Danirentzat



Dani Carballo izan da aurtengo Ihauterietako kartel lehiaketako 60.000 pezetako saria irabazi duena. Hogei lan baino gehiago aurkeztu dira, eta azpimarragarria da Ikastolako haurren parte hartzea. Guztiak ere ikusgai daude Forondan hilaren 8a bitartean.

Elena Iruretaren filme berria

Duela gutxi aurkeztu da "Hola ¿estás sola?" Iciar Bollaín-ek egin duen lehen filmea. Pelikula honek jasotako kritika onaz gain, asko aipatu da Elena Iruretak bertan egindako lana, kritikarien txaloak jaso baititu. Zorionak!

Hiru zumaia Txiskolan

Hiru zumaia gazte joan dira ETBn ematen duten Txiskola lehiaketan parte hartzera. Andoni Manterola, Ander Urbieta eta Imanol Narcisok osatutako taldeak ez omen du arrakasta haundirik izan beraien txistekin.

IZETA
orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083

ZUMEA
TABERNA

Erribera kalea, 2
Telefonoa: 861125

ZUMAIA

Endiñola
Zumaia

* SUKALDERAKO ALTZARIAK
* ELEKTROGAILUAK
* BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

Erribera, 8
Telefonoa: 861694

Berehala botako dute Patxanga

Bertakoak kezkaturik alkatearen erabaki honengatik

**Hilaren 5ean hasiko dira
Erribera kaleko 7 eta
9garren zenbakiak hartzen
dituen eraikuntzaren
botatze lanak.**

Lau eguneko iraupena izango dute, hasierako lanak eskuz egin beharko baitira. Iazko urriaren 10ean kaleraturiko dekretu batetan alkateak "ruina ekonomikotzat" jotzen zuen etxea, hortarako udal arkitektoaren informe teknikotan oinarritzen zuelarik bere erabakia.

Bertako biztanleak arduraturik azaldu dira erabaki hau dela eta. Kontenzioso bat ere aurkeztu dute, arazoa epaitegi aurrera eramanez. Horregatik, Alkateari galdetu zioten ea zergaitik duen horrenbesteko presa etxea botatzeko, aurkezturiko




Etxe honetan bizi izan zen Eusebio Gurrutxaga, jauregi modukoa batean.

kontenziosoaren emaitza atera gabe. Rikardo Peñak bere aldetik, eraikuntza "ruina inminentetzat" jotzen duela esan zuen, "informe teknikoek hala diotelako". Gainera, "kontenzioso baten erresoluzioa luzea izan

daitekela" gaineratu zuen.

HBk, azkenik, "akats prozeduralak" salatu zituen, "alkatearen gehiegikeritzat" joz bere garaian eginiko dekretoa. "Hasieratik gauzak gaizki egin izana" salatu zuen.



Bi urte inguruko iraupena izan dute lan haundi hauek.

Barra inauguraturik

Joan den hilaren 2an inauguratu zuten barra berria, nahiz eta lehendik ere zabalik zegoen herritarrentzat.

Edizio hau itxitzerakoan adierazi zigutenez, txistulari, trikitilari eta beste hainbat ekitaldi izatekoak ziren egun horretan.

Aspalditik botatzen genuen zumaiarrok faltan paol muturreraino pasiatzeko aukera.

Auto - Konponketak

ELKAR



Estazioko kalea
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201

DISKO-BAR



Alai Auzotegia 2.

Diru gutxiago 96rako

Oikiako frontoia, eta pizsinaren proiektua dira egitasmo garrantzitsuenak

Joan den urtarrilaren 25ean onartu zuen Udalak 728.038.000 pezetatako aurrekontua 96 urterako. Ez da sorpresa haundirik egon aurtengo aurrekontuetan, batez ere inbertsioei dagokienez.



Hemen kokatuko litzateke pizsina "naturala".

Asier Esnal, udaletxeko Hazienda batzordeburuak azaldu zuenez, 96ko aurrekontu hauen ardatz nagusia mailegurik ez eskatzean datza. Honen ondorioz, aurtun Zumaian egingo diren inbertsioak ere jeitsi egingo dira iazkoekin alderatuta (%13,6 batean zehazki), horrela, 96an egingo den inbertsio garrantzitsuena Oikiako frontoiaren eraikuntza izango dela esan daiteke, 25 milioitako aurrekontuarekin.

Motor berria erosiko dute udaltzaintzat

Hala ere, duela urte batzuk Udalak sortutako Zumaia Lantzen erakundeak egingo omen ditu hainbat lan herrian. Hauen artean, Mari kalean konponketa batzuk daude, 16 milioitako aurrekontuarekin, Basadi eta Alai auzoak lotzeko bidea ere

egingo du 5 milioirekin eta beste bide bat Alaiko irteera gisa, 30 milioitako aurrekontuarekin.

Proiektuak

Hainbat proiektu lantzeko ere aurreikusten dira diru partidak. Batetik 1.900.000 pezeta daude paol aldean (biberoan) pizsina ireki baten proiektua egiteko. Bestetik, igerileku estaliaren proiektua ere landuko da, honetarako sei milioi bideratu direlarik. Oxford konpontzeko proiekturako 1,2 milioi aurrikusi dira, eta Gernika Parkean eraikiko duten kantina baten proiektua 800.000 pezeta kostatuko zaigu. Kantina aurtun eraikitzea pentsatzen dute, honetarako 7 milioi zuzendu dituztelarik.

Hainbat gastu

Baina kantina ez da Gernika Parkean egingo duten gauza bakarra.

Komunak ere jarriko dira, lan honetarako 1,5 milioi daudelarik. Bestetik udaltzainek ere motor berri bat izango dute.

Kulturan, beste hainbat konturen artean konparaketa kurioso bat: Uda Musikalak 6 milioitako dirulaguntza jasotzen duen bitartean, liburutegiak milioi bakarra jasoko du liburuak erosteko. Bestalde, talde sozialek badirudi ez dutela garrantzi haundiegia, zeren adibidez, emakumeentzat ez da diru partidarik aurrikusten, gaztediarentzat diru kopuru sinboliko bat bideratu den artean.

Alderdi politikoen jarrera


PNV, EA eta PSOE-ren aldeko botoekin onartu zen 96rako aurrekontu hau. EA-k esan zuenez, «hutsune haundiak ikusten ditugu aurrekontuetan, iaz abstentziora eramán gintuztenak, baina Oikiako frontoia egingo da, eta hori oso

ΔΙΖΜΑΝ-KOS S.L.

SANEAMENDU ETA
ERAIKUNTZA MATERIALA

Iraeta auzoa
z/g
Aptdo. 78

Tlf/Fax: 14 81 24
20740 IRAETA -
ZESTOA




NIKOL-ENEA
taberna

Amaiako plaza Tfnua. 861440

garrantzitsua da». HB-k bere aldetik, aurrekontuen aurka bozkatu zuen, ez baitzeuden ados «aurrekontuak prestatzeko erarekin». Migel Aperribaik esan zuenez «ez dugu eztabaidatzen inbertsioak ongi edo gaizki eginak dauden. Guk aurrekontuak eginak jaso izana salatzen dugu. Ez zaigu aukerarik eman proposamenik egiteko. Hirukoitzak egin eta ondoren HBri eman dizkio». Hontaz gain aurrekontuetan hainbat bizio eta hutsune ikusten zituztela salatu zuten. Bizioen adibide gisa «kargu politikoen soldata» jarri zuten, eta hutsunetzat «emakumeentzat partidariak ez egotea eta gaztediaren diru gehiena Ludotekak jasotzea».

Kantina bat eta komunak eraikiko dira Gernikako parkean

Guzti honi alkateak erantzun zion esanaz berari «dagokiola aurrekontuak aurkeztea, eta Zumaiako udalean prozesua irekia denez batzorde guztien proposamenak jasoz egiten da, baina lehentasunengatik gauza asko bidean geratzen dira». Kargu politikoen soldata dela eta, «kargu politikoei ardura bat dutenean zerbait kobratu behar dutela» esan zuen, gaineratuz «alkatearena ere horrela erabaki dela EUDEL-en zerrenden arabera».



Oikiako frontoi berriak ez du diputazioaren laguntzarik izango.

Gogoratu alkateak 6.227.728 pta. jasotzen dituela gizarte segurantzaren aparte egun osoko lanagatik, eta egun erdiko lanaz dauden beste bi zinegotzik 1.200.000 pta. inguru jasotzen dituela bakoitzak.

Orain, onarpenaren fetxatik hasita 15 eguneko epea daude herritarrek aurrekontuak ikusi, eta hala nahi izanez gero enmendakinak aurkezteko. Horretarako Udaletxera joatea besterik ez dago.

Gaztedia baztertua

Gaztediaren atalari dagokionez 7.375.000 pezetatako diru partida bat dago aurrikusita. Hala ere, diru hortatik 6.375.000 pta. Ludoteka eta udaleku irekientzat dira, gaztediarentzat orokorrean milioi bat bakarrik geratzen delarik.

Honen inguruan, Zumaiako Gazte Batzordeak bere iritzia kaleratu du jarrera hau salatuz. Beraien ustez, «ongi dago Ludotekari diru kopuru hori bideratzea, baina beste hainbeste behar da gaztedia politika serio bat egiteko, eta honelako jarrerarekin Udalak argi lagatzen du ez duela hori egiteko asmorik». ZGBk kaleratutako idatzia «Iritzia» atalean ikus dezakezue.

KALARI TABERNA JATETXEA

- * Eguneko menua
- * Plater konbinatuak
- * Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAILA



**JUSTA
TABERNA
EGUNEROKO
BAZKARIAK**

Erribera kalea 20

Ospitala ez, EGOITZA

Bizitza horrelakoa delako duela berrogeita hamar urteko gazte batzuk gaur egun San Juan Egoitzan dauzkagu. Idazten ari garan momentuan etorriko bazina Juana eta Ignacio ikusi zenituzke, Bergarako senar-emazte batzuk, egunero bezala Zarauzko errehabilitazio zentrura joateko anbulantziaren zai. Barruan, egongela nagusian, talde bat Gimnasia egiten ari da; astelehen, astearte eta ostiralero biltzen dira goizeko 10:30etan, eta asteazken eta ostegunetan errehabilitazio gelara jeisten dira.

San Juan Egoitza

Momentu honetan 21 bakarrik badaude ere, egoitzan 51 pertsona bizi dira, 25 zumaiaarrak eta beste 26 ingurukoak. Piaren bizkortasunak harrituta uzten gaitu. Hurrengo uztailaren 11n 88 urte beteko ditu, baina oraindik gutxi batzuk falta ditu Dionixiak dauzkan 97etara iristeko. Izan ere, bertako 5 pertsonak 90 urtetik gora dituzte, eta beste bederatzik 85 baino gehiago; batezbesteko adina 79 urtekoa dela esan daiteke. Batzuk beren kurpiltxodun karroetan eta beste batzuk siloietan, gogoz hartzen dute parte gimnasia, bakoitzaren gaitasunaren arabera. Oraintxe bertan



Eskulanekin erakusketak egiten dira gero.

berekasa ibiltzeko gai diren 22 lagun ditugu, eta gainontzeko 29ei lagundu egin behar zaie.

Laguntza egokia eskeini ahal izateko langile talde bat dugu batetik, eta komunitate erlijioso bat bestetik. Hauek arduratzen dira bai laguntza kontuaz --sukaldea, higieenea, garbiketa, osasuna, erropa...-- eta baita gai sozialaz ere --ekintzak, tramiteak...

Borondatez laguntzera etortzen den jendeak lan izugarria egiten du

1990tik aurrera egoitza fundazio publiko bat denez, bere funtzionamendua zuzentzen duen eta erabakiak hartzen dituen Junta bat

dago. Aurrekontuak egiten ditu eta kostuak ikusi; eta honetan oinarrituz bertakoek ordaindu behar dituzten kuotak zehazten dira. Aurten, adibidez, urteko kuota hileko 69.000 pezetakoa da, baina honek ez du esan nahi sarrera eskatzen duen eta baliabide nahikoa ez dituen onartuko ez denik. Kasu bakoitza banan-banan aztertzen da.

Zer egiten dugu denbora librean?

Gosaldu eta guapo jartzearekin batera, karrotxo eta bastoiak igogailuan gora eta behera hasten dira, batzuk irakurketa-idazketara joateko, eta beste batzuk gimnasia edo errehabilitaziora, hauetxek baitira goizetako lehen aktibitateak. Ekintza hauekin nagiak atera ondoren, zenbait

TXOKOA



T
B
E
R
N
A

Artadi
Auzoa

86 21 89

*Jesuskoa
Patetxea*



Apuen 86 17 39 • Urtia - Zumaia



kalera abiatzen diren bitartean -- txikiteoaren ordua da--, beste batzuk meza entzutera doaz.

Orroaka zebiltzan gure sabelak baretu eta siestatxoa egin ostean, arratsaldeko aktibitateekin hasten gara. Urteko sasoiaren eta asteko egunaren arabera, lan ezberdinak burutzen ditugu. Astelehenetan, adibidez, eskulanak egiten ditugu; batez ere, zumearekin aritzen gara, eta baita beira margotu eta arraiatuz ere. Lan hauek bukatu ondoren egoitzan bertan, Forondan eta beste egoitzetan erakusten dira. Lan gehienak saldu egiten direnez, bildutako dirua Hirugarren Mundurako programetan laguntzeko zuzentzen da, "Hermanas del Amor de Dios" kongregazioaren bidez.

Egoitzan 51 lagun bizi dira, 25 zumaiarrak eta 26 ingurukoak

Txapelketak egitea ere izugarri gustatzen zaigu: domino, punttoa eta toka udan. Oso gustora bidaiatzen dugu Laponia, Afrika, Santo Domingo, Thailandia, Klimanjaro, Andetara eta abar, eskeintzen dizkiguten diapositiba emanaldi eta hitzaldien bitartez. Ezin ditugu ahaztu bingoarekin igarotzen ditugun une ederrak. Hau da emozioa. BINGO! Kirola gure afiziorik maiteenetako bat izanik, sosak txirrindularien kiniela ezberdinetan jokatzen ditugu.

Zenbait gautan astearte edo ostirala dela amesten dugu, gure



David eta Jesusa, ihauteritan umorean.

furgoneta zoragarrian irteera batzuk egiteko. Furgoneta eta beste auto batzuei esker eskurtsio ezberdinak egin ditzakegu, inguruak bixitatu eta herri ezberdinetako kafesne eta boiloak probatuz: Orio, Zestoako Bainuetxea, San Migel, Getaria, San Prudentzio, Elgoibar eta abar luze bat.

Urtean zehar badaude egitarau zabal eta berezia izaten duten egun jakin batzuk: Ihauteriak, San Telmoak, San Juan Eguna, San Pedroak, Aiton-amonen astea, Gabonak eta parekorik ez duen Familien Eguna, duela gutxiko

kontua den arren, geure familien aldetik maitatuak, babestuak, baloratuak eta mirestuak izaten izugarri laguntzen baitu.

Aipamen berezia merezi du **Hementxe, ba!** aldizkariak. Denok parte hartzen dugu aldizkaria osatzen eta bertan, hiru hilabetetik behin, aukera ederra duzue zer egiten dugun ikusteko, gure argazkiak ikusi eta gure urtebetetze egunak gogoan izateko.

Hau guztia borondatez laguntzera etortzen diren lagun talde bati eskerrak eramaten da aurrera; gurekin egotera eta jolastera etortzen dira, errehabilitazioan laguntzera, hitzaldiak ematen dizkigute, eskulanak egiten erakutsi ere bai, eta behar den bakoitzean beren autoak gure eskura jartzen dituzte.

Ekintza hauek elkarren arteko harremanak hobetzen laguntzen dute, komunikazioa bultzatzen, egoitza herrian txertatzen..., azken finean URTEEI BIZITZA EMATEN.



Zumaiako txokoetat gain, kanpoko herriak ere bixitatzen ditugu.

Surf

Torre Luján, 2
Tel. 83 50 24
20800 ZARAUTZ

Embera 4/B
Tel. 85 23 44
20750 ZUMAIA

ARRAIN ETA MARISKOAK

BARAZKIAK
ETA
AURREZ
PRESTATUTAKO
JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK

Juan Belmonte 6
ZUMAIA

Tnoa: 860415

Dionisia Arrizabalaga, Zumaiako amona

1899 urtean jaiotakoa da Zumaiako amonarik zaharrena. Anesko familikoa da, eta Pedro Agirrezabalaga "Txonpe" izan zen bere senarra. Oso buru argia du oraindik ere eta lehengo kontu batzuk atera dizkiogu.

ZER EGITEN DUZU HAIN GAZTE MANTENTZEKO?

Urteak konturatu gabe pasatzen utzi. Gerrak pasatu eta lana egin. Oso ona da, lanean disfrutatu egiten nuen. Jostuna ere izan nintzan.

ZER GOGORATZEN DUZU OSPITAL ZAHARRARI BURUZ?

Oso txikia zan. Gero, Belmontek berria aurrera eraman zuen. Korrida hartan nere ahizpa Manolaz jantzita atera zan. Korrida ondoren berbena bat egin zen, estilo sevillano, eta diru asko jaso. Don Wenceslao apaizak dirua ona zela esan zuen, baina gaizki etorria, diru zikina. Zuloagak eta, ez zuten kleroaren kontra joan nahi izan eta han bukatu ziren gure berbenak. Zer ote dauka txarra berbena batek, dantza egiteak? Ondo portatzen bazera...

EGOITZAN ZER MODUZ?

Gustora nago. Hiru urte daramatzat bertan. Servicio de primera: garbitasun haundia, jende jatorra. Jatekoa ona, tripa-haundi horientzako gutxitxo izango da, baina ez gaude 17 urtekoak.

100 URTE HURRE DITUZU...

Estamos en la antesala de la muerte. Minez egon ezker ez nuke gehio bizi nahi, baina bestela ez daukat presarik. Orain bezela burua ondo izan ezker gauzak ondo. Ni baino zaharrago San Migelgo gizonezko bat izango da. Lagun guztiak aldegin ezker ilusio pixka bat galtzen da. Nere ilusioa? Festatxo bat izatea 100 urte egiterakoan. Heriotzari bildur pixka bat diot, zer izango ote den. Heriotz ona nahi nuke, konturatu gabe Amabirjinares besoetan.

Ezkondutze egin beharra dago multiplikatzeko

URTE HAUTAN ZER ALDATU DA?

¡Cómo se gasta el dinero ahora! Lehen oso estu bizi ginen. Langile guztiok bizi ginen gaizki, ahora se ha industrializado de tal manera esto. Orain el mundo es una hermosura, pero muy peligroso. Oraingo asmaketa hauek bildur haundia ematen didate, baina danan gainetik Jangoikoa dago. Ez zait ondo iruditzen eleizatik ez ezkontzea. Gainera, ezkontutze egin



behar da multiplikatzeko. Konplikazioak izango ditugu! Se querrán igualmente, baina nere erlijioaz ez det ondo ikusten. Gaur egun, hay mucho desengaño, baina baleike gu bezain guraso onak izatea.

Hijas de Mariako kapitainak ondo bijilatzen zigun dantzaldietan. Ezkontutze arte cantando cantando letaniak. Apaizak nahi zuen bezela dominatzen zigun. Haragi koloreko galtzetakin apaizak ikusi ezker, errietan egin eta punto ingleseko galtzeta grisak jantzi behar. Orduan hasi ziren gazteak eliza uzten. La vida era muy distinta. Seirak ezker etxera, argirik ez zegolako, paolaldera joaten hasi eta ezin, alde guztietatik arratoiak. Plazan musika bukatzen zenean, argiak itzaltzen ziran. Toki publikotan emakumerik sartu ezin, ta ezkontutze ondoren senarrarekin. Orain dela urte batzuk akordatzen ez nintzen gauzak orain akordatzen zaizkit. La mente tiene que trabajar. Zuei ere etorriko zaizue... ■

SOLOZABAL AUTOESKOLA



Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenan
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416



Erribera kalea Telefonoa: 861523

ZUMAI



ERLANTZ
ESTEIBAR

Leku danetan bezela.

Zaila al da Zumaian neskatan egitea?




PEDRO MARIA
SANCHEZ

Nahiko gogorra; animoa eta
espirituaren arabera.



JOSE LUIS AIZPURUA
"JOSELE"

Kriston zaila da, zeren eta, mutil
gehiago daude neskak baino.
Guapoek errezo dute.



AITOR
MANTEROLA

Lehen Azpeitian egiten genuen,
baina orain ez dugu egiten, hemen zaila
da, Azkoitian errazago.



ANDER CANO

Hitza asko zabaltzen da herri
honetan, gezur asko esanez. Hala ere
nahiago dut kanpoan ligatu.



MIKEL MARTIJA

Ez da errexa, neska eta mutilen
artean ez dago erlazio asko, eta
gainera Zumaia herri txikia denez,
gauzak azkar zabaltzen dira.



ARKAITZ
AIZPURUA

Zumaian bai, beste lekutan
errexo, ez digutelako ezagutzen. Ez
du inporta neska herrikoa izanda ere.



IGOR ETXABE

Ez pentsa, jendea itxia da,
lotsatia... Hobeto kanpoan, baina hala
ere...



JUAN LUIS
BLANCO

Ez da erreza, ez
Zumaian, ez inun.



DANIEL EIZAGIRRE
"BELTZA"

Neska daukat, eta lagata
natxiok, bueno, eta angulek
denbora kentzen didate.



Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57




MENDI - ONDO
ELEKTRIZITATEA

Axular 14
20750 ZUMAIA

Telefonoak:
860074 - 861569

- ALARMAK
- ANTENAK
- * Banakoak
- * Kolektiboak
- * Satellite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.



BOM BOMBOM!

BOM BOM BOM!
BOMBOMBOM

BOM BOM

BOMBOMBOM

BOMBOM

BOM BOM

BOM BOM BOM



BOM BOM BOM
BOM

BOMBOM!

BOMBOMBOM

BOMBOM BOM

BOMBOM! BOMBOM

BOM

BOMBOMBOM

BOM BOM BOM

BOM BOM



THE PAST!



NAM!

OM BOM BOM BOM

BOMBOMBOM

BOM BOM

BOMBOMBOM

BOMBOMBOM



BOMBOMBOM

BOMBOMBOM!

BOMBOMBOM


BOMBOMBOM

BOMBOM!



REDIBOM

REDIBOM



Gizonezkoek beharbada ez duzue ezagutuko, baina emakume honek 5 urte daramatza gure herrian lanean. Zertan? Zumaiar guztiak eta bidean datozenak zaintzen. Emagina edo matrona da, eta 15 urte dira lan honetan diharduela. Eskoriatzarra da, baina Zarautzen bizi da, eta bi ume ditu Jaionek.

Jaione Iregi

Lehenago Donostia eta Arrasaten aritu izan da lanean, eta gaur egun Getaria eta Zestoan ere pasatzen du kontsulta. Pintura oso gustokoa du, eta Arte Ederrak ikasten ari denez, asteen behin joaten da Leioara. Ez da makala emakume hau! Hona hemen goxo-goxo kontatu dizkigun kontuak.

"Emaginaren lana asko aldatu da"

ZEIN DA EMAGINAK BETETZEN DUEN LANA?

Askok aldatu da emaginaren lana azken urteotan. Garai batean umeak mundura ekartzen laguntzea izaten zen ia bere zeregin bakarra, eta gaur egun ia denetik egin behar izaten du. Haurdunaldian dagoen bitartean emakumeak laguntzea da oraindik ere lanik garrantzitsuenak, programa bat jarraituz. Haurrak eduki ondoren ere jarraipen moduko bat egiten da, zenbait kasutan "depresión post-parto" izenekoak ematen baita. Honetan gain kontsulta pasatzen dut, eta bertan gai oso ezberdinak tratatzen ditut.

"Gazteak uste dutena baino okerrago informatuta daude"

ZER ADINETAKO JENDEA ETORTZEN ZAIZU?

Askok aldatzen da adina, segun eta zertara etortzen diren. Orain, adibidez, titietako minbiziaren kanpainarekin 50-60 inguruko emakume asko etorri zaizkit. Bestela kontrolak egitera etortzen da batez ere jendea



Zumaia lan egiteko leku ona dela aitortu digu.

eta famili plangintzari buruzko kontsultak egitera ere bai.

AZTERKETA EDO REBISIO GUZTIAK HEMEN EGITEN AL DIRA?

Zarauzko ginekologoarekin elkarlanean aritzen naiz, eta frogatzen batzuk hemen egiten ditugu eta gainontzekoak Zarautzen. Zitologiak eta mamografiak egiten dira, umetoki edo titietako minbiziaren arrastorik ez dagoela ziurtatzeko.

NOLAKOAK IZATEN DIRA KONTSULTAK OROKORREAN?

Kontsultak pertsonalak izaten dira eta banan-banan ikusi behar da zein

den arazoa edo zer informazio nahi duten. Oso garrantzitsua izaten da kontu hauei buruz lasai hitz egitea. Askotan jendea oso urduri sartzen da kontsultara, baina gehienetan atetik irteten denerako lasaiago egoten da. Emakunde eta Osakidetza ateratako liburuxkak eta antzeko materiala ere ematen diet batzutan, baina garrantzitsuenak giza tratua izaten da, hitz egitea.

FAMILI PLANGINTZA ONDO BIDERATZEN AL DA?

Bien kontua izanik ere, normalean emakumea izaten da famili plangintzaz arduratzen dena. Metodo naturalei



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19
20750 ZUMAIA

Telefona: 861433
Fax: 861067

MAITE
ILEAPAINDEGIA

Bereztasuna ileen
sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278



Loitz

- Eskola eta Bulegoko Materiala
- Fotokopiak
- Enkuadernazioak
- Plastifikazioak
- Fax Publikoa
- Aldizkari eta Opariak

Enbena Kalea, 4
Telf. Fax: 14 34 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

buruzko informazioa ere eskatzen du eta azaltzen diogu zertan oinarritzen diren ogino metodoa, tenperaturarena..., baina ia kasu denetan bestelako metodoren bat aukeratzen du: pilula, DIUa, preserbatiboa, eta abar.

MENOPAUSIAK ARAZO LARRIAK AL DAKARTZA?

Zalantzarik gabe. Baina emakumeak bere bizitzan zehar igaro behar duen beste aldi bat da. Obulazioaren eteteak aldaketa handiak ekartzen ditu eta honek arazo psikologiko larriak sortzen dizkio emakumeari. Halako hustutasun bat sentitzen du eta motibazio bereziak behar izaten ditu aldi honetan, laguntza handia. Horregatik menopausia aztertuko duen programa berezi bat lantzea gustatuko litzaidake.

"Hemen ez da abortatzen, baina bideratu dezakegu"

GIZONEZKORIK ETORTZEN AL ZAIZU?

Ia batere ez da etortzen. Haurdunaldian etortzen dira gehiena, laguntzera. Gizonezkoak behin gutxienez ekartzen saiatzen naiz, emakumearen ondoan egoteko, baina zaila izaten da denak biltzea. Lanaren aitzakia jartzen dute gehienetan, baina medikuarengana joateko azkar asko libratzen dira. Pentsa, adibidez basektomiari buruzko informazio eskatzera gizona etorri beharrean emaztea etortzen da batzutan.

GAZTE ASKO INGURATZEN AL DIRA ZUREGANA?

Ez, gutxi etortzen dira. Iaz

adibidez 18 urtetik beherako neska bakarra etorri zen. Gertatzen da zerbitzu hau anbulatorioan dagonez, gazteak lotsatu egiten direla; bertan ezagunen bat topatzeko beldurra izaten dute. Horregatik hona etortzen direnak jadanik finkatutako bikoteak izaten dira, sexu harremanak badituztenak eta arazoren bat dutenak. Guk eskoletara bixita batzuk egiten ditugu eta esaten diegu nola edozer gauza kontsultatzeko hemen egoten garelara.

ZER EGITEN DUZUE BIXITA HORIETAN?

Aurrez test moduko bat bidaltzen diegu ikasleei, sexualitateari buruz duten informazio maila neurtu eta zer gai ikusi nahi dituzten jakiteko. Gero bertara joaten gara eta gai horiei buruzko hitzaldiak ematen dizkiegu. Uste dut diputazioak ere antzeko zerbait egiten duela bi urtetik behin. Ikastolatik ere deitzen digute, baina hizkuntzaren arazoa dago tartean, ezinezkoa baitzaigu euskaraz ematea.

ZEIN DIRA GAZTEEN KEZKA NAGUSIAK?



Gazte gutxi joaten omen zaizkio Jaioneri. Animatu, beldurrik gabe.

JOSEBA OSA
- **ITZULPENAK**-
EUSKARA-GAZTELERA-
KATALANA-INGELES-
FRANTSESA

Tel / fax: 148065

ekin
ELEKTRIZITATEA

ISTALAZIO ELEKTRIKOAK
ISTALAZIO MUSIKALAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
ANTENAK
PORTERO AUTOMATIKOAK
DENDA: K. Nagusia, 8 - Telf. - Fax: 14 30 97
TAILERRA: Larretxo, 10 behe 1ª - Telf. 14 34 74
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

S
DORNUTEGI

ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behe
Telefonoa: 862051

SUKALDEKO
ALTZARIAK

20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)



Hamabost urte badaramatza Jaionek langintza polit honetan.

izaten baita. Lehengo astean bat joan da eta aste honetan ere beste bat bidali dut Donostiara, baina urtean zehar ez dira hainbeste kasu izaten. Gero gertatzen da batzuk hona etorri gabe zuzenean joaten direla, beste era batean jakiten dute non dagoen abortatzeko aukera.

GAZTEAK ONDO INFORMATUAK AL DAUDE?

Lehen baino gehiago bai, behintzat. Hala ere, beraiek uste dutena baino okerrago informatuak egoten dira. Telebistan, eskolan, koadrilan gauzak ikasten dituzte, baina gero galdera zehatzak egiten dizkiezu eta konturatzen zara oraindik ere ezjakintasun handia dagoela. Adibidez batzuk ez dute jakiten zikloaren zein momentutan egoten den haurdun geratzeko aukera gehien.

GURASOEKIN SEXU KONTUETAZ GUTXI HITZ EGITEN DELA IGERTZEN AL DA?

Bai, zenbait asko kostatzen zaio

sexualitateari buruz lasai hitz egitea, eta gazteek gurasoei sexu harremanak dituztela aitortzea ez da erraza izaten batzutan. Inkomunikazio handia dago, eta horregatik lagun artean eta gehiago kontatzen dira gai hauek.

HIESARI AURRE EGITEKO ZER PREBENTZIO LAN EGITEN DIRA?

Eskoletako bixitetan gai hau bereziki lantzen da, sexu bidez transmititzen diren gaixotasunena, alegia. Preserbatiboaren erabilera bultzatzen da kasu guztietan, eta orokorrean jendeak ondo daki zer arrisku dagoen bestela. Ez zait iruditzen, hala ere, Zumaian beste herri batzuekin alderatuta HIESAk eragin handia izan duenik.

PERTSONA SEXODUNAK GARELA JAKINDA, NOLA BIZI DUGU SEXUALITATEA TXIKITATIK?

Etxe bakoitzean sexualitatea nola bizitzen denaren arabera asko aldatzen da. Gizartean konfusio handia dago honi

buruz. 8. mailako ikasleengana joaten garenean asko hitz egiten dugu gai honetaz; sexualitatea ez dela bakarrik koitoa eta umeak izateko bide bat, baizik sexualitatea jaiotzen garenetik hil bitartean bizitzen dugun gauza bat dela.

Sexualitatea tabu izaten jarraitzen du leku askotan, eta kulpabilizazio bat ere ematen da zenbaitetan, gurasoen aldetik. Adibidez, haurrak genitalak ikutzen baditu, kentzeko edo hori ez egiteko esaten zaio, eta gurasoak ez dira konturatzen hori haurraren prozesu ebolutiboan pauso bat besterik ez dela.

"Emakumea izaten da famili plangintzaz arduratzen dena"

EZ AL DAGO DENA BIKOTE HETEROSEXUALEI ENFOKATUTA?

Bai, gizarteak horrela funtzionatzen du. Nik, hala ere, ez dut bereizketarik egiten eta bikote homosexualak etorri izan zaizkidanean ere berdin-berdin hartu ditut. Hala behar luke leku denetan.

BAKARKA EDO BIKOTEKA BIZITZEKO BAKARRIK AL DA SEXUALITATEA?

Askotan ez da horrela izaten, baina bi pertsonen arteko gauza bakarrik dela uste du gizarteak.

PRAKTIKA SEXUAL EZ BERTINAK ERE HOR DAUDE: SADO-MASOKISMOA, ZOOFILIA...

Normatik ateratzen den guztia ez da onartzen. Moral bikoitza dago gai honetan, eta gero Sevillan gertatu dena gertatzen da, adibidez. Oso progresista eta irekiak garela esaten dugu, baina gero... ■

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2



**OPTIKA
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1 Tel. 143057
20750 ZUMAIA



Motxian hi!

Nor: Joxe Etxebarria
Nola: "Donjo"
Zer: Apaiza

- ZER DEZU NAHIAGO, BAKALAUUA ALA TRIKITIXA?
- EZ NAUK BAKALAUZALEA. TRIKITIA.
- ZER IRUDITZEN ZAIZU ZUMAIKO GAZTEDIA?
- GLOBALKI HARTUTA, JENDE NOBLIA.
- DATORREN KONTXAKO IKURRINA NORA?
- HORI, ZIUR, SANPEDROTARRAK IRABAZIKO DEGULA.
- ARDOA ALA SAGARDOA?
- ARDOA.
- ELIZA BIZITZAKO ANEKDOTAREN BAT.
- BEHIN BATEZ ELIZARA JOAN NINTZENEA,
- MEZA ENTZUTEKO ZAI ZEUDEN GAZTEZ
- BETETA AURKITU NUEN (JA, JA, JA).
- ZER EKARRI DIZU OLENTZEROK?
- ALKANDORA, URTERO BEZELA.
- URTE LUZEZ GAZTE BIZITZEKO
- AHOLKUREN BAT.
- UMOREA BEHAR-BEHARREZKOA DA.
- GEHIEN IRRIKATZEN DEZUN AMETSA?
- GURE HERRIA ASKE IZATEA.
- ZUMAIK ALA PASAIA?
- PASAIA ETA GERO ZUMAIK.
- HIRU GEHI LAU ZENBAT DA?
- BAT GERA.

Kontu-kontari

KANPOAN AFALTZERA

Aste osoan nahiko lan egin eta ostiral arratsaldean tailerretik irten eta koadrilarekin hiruzpalau txikito edan ondoren etxeratu da gure Joxinaxio. Etxera sartu bezain laster honela dio emazteari:

- Aizu, Olatz, Gaur kanpoan afalduko degu.

Emazteari begiak ñir-ñir jarri eta sartu da bere logelan. Bien bitartean Joxinaxiok zapatilak jantzi eta eseri da lasai egongelan. Periodikoa irakurtzen. Halako batean azaldu zaio emaztea dauzkan soineko eta jaka dotoreenekin. Aurpegia makilatuta. Lepoan idunekoa. Ondo orraztuta. Kolonia usain goxoz eta egun handietako eraztun ederrarekin. Senarrari begira parrez-parrez.

--Baina Olatz, nora zoaz horrela jantzita?

--senarrak.

--Ez al didazu esan ba, kanpoan afalduko degula?

--Kanpoan bai, baina terrazan emakumea, terrazan.



ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
- ALBAITARIAK -

Basadi, 7 behe
20750 ZUMAIK
Tel. 143310

LARRIALDIK
• 24 orduetan
• Zeure etxean
• Telef. 900-282828
Abonatu zbkia: 247790

BIZKOR FOTOKOPIAK



• Enkuadernaketak
• Plastifikatzeak
• Fax publikoak
• Bulegoko materiala

Basadi 14, behe - Tlf: 145120

Aita Mari, sokorristen aitzindari

Aita Mariren izenak Zumaiaiko paisaiaren atal garrantzitsu bat osatzen du, zalantzarik gabe: zinea, futbol zelaia, arraun taldea, poligonoa. Guztiek daukate beraiekin bere baitan izen hau. Baina zergatik? Nor izan zen Aita Mari?

Romualdo Artetxe



Jose Maria Zubia Zigarón, "Aita Mari", 1809ko martxoaren 15ean jaio zen Zumaian. Arrantzaleen seme izanik, txikitatik laguntzen zion bere aitari, eta honela hasi zen gerora bere bizitzaren erdigune bihurtuko zenean.

Lehen guda karlistaren ondorio latzak jasan ondoren eta Ameriketara zenbait bidaia eginik, berrogei urte inguru zituenean, Donostian kokatu zen behin betiko. Eta bertan txalupa baten jabe egin eta patroiz gisa arrantzan lan egin zuen. Gizon ausarta eta bihotz handikoa, ez zuen zalantzarik izaten arrantzaleak arriskuan zeudenean laguntzera joateko. Bere amore honen erakusgarri, Donostiako lau arrantzale salbatu

zituena galerna handi baten erdian eta eginkizun honengatik 2. mailako benefizentzia gurutzea oparitu zioten, 1861eko uztailaren 13an.

**Herri txiki bat
besterik ez zenak,
errespetu handia
zion Zumaiaiko
gizon ausart honi**

Ekintza heroiko honi esker Aita Mariren pertsonaia solidaritatearen adibide bihurtu zen. Donostia osoak, garai hartan herri txiki bat besterik ez zenak, errespetu handia izan zion Zumaiaiko gizon ausart honi. Baina

nahiz eta kasu honetan Aita Mari garaile atera, 5 urte beranduago itsasoak mendeku hartu zion.

Garai hartan ohitura zen bezelaxe 1866ko urtarrilaren 9ko goizaldean txalupak Getariatik Lekeitio aldera abiatu ziren amuko bixiguak arrantzatzeako asmotan. Zorte txarra izan zuten, abiatu eta 5-6 ordutara izugarritzko ekaitza hasi baitzen. Kontrako haizea zegoenez ezin izan zuten Getariara bueltatu, beraz, Pasaia eta Donostiako portuetan sartzen saiatu ziren. Lehenengo txalupak, ELKANO Nº1 izenekoak eta Manuel Aramendi patroiz zuenak, ezin izan zuten Pasaiaiko portu sarrera igaro, eta bere 18 marinela bertan ito ziren. Bigarren txalupak, ELKANO Nº 2 izenekoak eta Jose



**BASUSTA
ERRETEGIA**

M^a Dolores Aizpurua

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefonoa: 862073

20750 ZUMAIA

ZALLA
Taberna - Erretea
PLATER KONBINATUAK
OTARTEKOAK
OILASKO ERREAK
San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

Galdona

burdindegia

Mendaro mariñela, 1
Juan Belmonte, 15
Tlf: 86 11 17 / 14 33 46
Fax: 861330

20750
ZUMAIA
(Gipuzkoa)

Maria Sorreluz patroi zuenak, (aurrekoaren koinatua) lehenengoak bezain bukaera goibela izan zuen Donostiako portu sarreran. Azken txalupa honi lagundu nahi izan zion Jose Maria Zubia Zigaron *Aita Marik* bere txalupa txikiaz, baina ezinezkoa izan zen eta Aita Mari bertan hil zen.

Itsasoaren oldar eta haserreak 38 arrantzale berekin eraman nahi izan zituen kasu hartan. Era honetako heriotza topatu izanak mito bezala izendatu zuen Aita Mari arrantzaleen artean. Aita Mariren soinak ikus daitezke bai Zumaiaiko Erribera kalean eta baita Donostiako portuan ere. Honek lagundu beharko liguke gaurko mundu berekoi honi aurre egiten.

Bere soinak ikus daitezke bai Erribera kalean, eta baita Donostiako portuan ere

Heriotza hau gertatu eta 100 urte beranduago, 1966ko urtarrilaren 9an hain zuzen ere, Aita Mariren omenez hainbat ekintza ospatu ziren Zumaia eta Donostian. Kasu hontan, Zumaian meza bat izan zen eta ondoren manifestaldi bat zenbait agintari beronen buru zirelarik, eta ekitaldi honetan Aita Mariren soina gaur egun dagoen tokian kokatu zuten San Telmoren himnoa abesten

zuten bitartean. Eskaintza haien gisa lerro hauek pertsonaia ausart eta maitagarri honen omenaldi izan nahi lukete bere heriotzatik 130 urte pasa direnean. Eta bukatzeko, gogoratu besterik ez aintzinako kopla bat, arrantzaleek Aita Mariren omenez abesten zutena. Bertan oso zehatz adierazten da Aita Mari izan zena: "*Oh, Mari leial, on, bihotz hutsa*". ■



Lehen mendeurrenean jarri zen Zumaiaiko soina.



ORAINDIK ERE OROITUA

Ez dira gure zaharrak bakarrik gaur egun Aita Mariz oroitzen direnak. Gazteak ere oroitu ohi gera pertsonaia honetaz, nahiz eta bere bizitza gehiegi ez ezagutu. Honen inguruan, anekdota berezi bat gertatu zen 92ko ihauterietan.

Urte hartan, urtero bezala, Udalak kartel lehiaketa antolatu zuen, ihauteriak zirela medio. Irabazlea, Juan Luis Blanco izan zen, irudian duzuen kartelarekin. Ikusten denez, Aita Mari pirataz mozorrotu zuen kartel honetan. Izugarrizko istilua izan zen herrian kartel hau zela eta; jende ugari deitu omen zuen udaletxera kexuka, hori Aita Mariri errespetu falta izugarri bat omen zela esanaz. Ez da hainbesterako!!



ERROTA
OPIL - OKINDECIA

Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68
Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01
ZUMAIA



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA

Telefona: 862206



ARGIA

Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA



Azken txanparako bidean

Azken emaitzak

HIL TA PAKIA 1 - XEMETAXIO 8
IPURBELTZ 2 - EVERIN 12
AGINAGALDE 2 - BUITRAKER 1
INPERNUPE 2 - ZUMEA 1
IPURBELTZ 3 - KABI 10
BUITRAKER 0 - ZUMEA 10
INPERNUPE 3 - EVERIN 5
AUTOS ZUMAIA 1 - HIL TA PAKIA 1
AUTOS ZUMAIA 0 - MENDI-ONDO 6

Bukatu da aurtengo plaierotako lehen fasea, eta dagoeneko egin dituzte bigarren fasea jokatzeko multzoak. Orain arteko partiduen ondoren bi multzotako sailkapenetan lehen lau postuetan geratu diren taldeek LIGA izango dute jokoan, eta gainontzeko laurak KOPA.

Hilaren 4 eta 5ean bertan hasiko da bigarren fase hau, eta txapelketa honek San Telmotan izango du amaiera.

Bestalde, aipagarria da antolatzaileek *Leize* taldea kanporatzea erabaki zutela, egokitu zitzaizkien partidua arbitratzera ez azaltzeagatik bigarren aldiz.



LIGA

Xemetaxio
Hil ta Pakia
Everin
Zumea

Aginagalde
Kabi
Mendi-Ondo
Urberu

KOPA

Autos Zumaia
Ipurbeltz
Buitraker
Inpernupe

izerdi tantak

Igor Beristain mundialetan



Hil honen 4an Frantziako Montreuil herrian jokatuko den munduko ziklo-kross txapelketan izango da Igor. Euskadiko txapelduna beste hamairu euskaldunekin batera abiatu da eta 23 urtez azpikoen kategorian korrituko du.

Urtarrilaren 14an Legazpin jokatuako Estatuko txapelketan hirugarren postuan sailkatu zen, eta Iker Ortiz kadetea seigarren geratu zen. Benetan mundiala eta bikaina txirrindulari zumaia arrak burutzen ari diren denboraldia.

Krosa martxoaren 17an

Azkenean martxoko hirugarren igandean jokatuko da XII. edizioa beteko duen Zumaia herri krosa.

Polikiroldegi inguruan burutzen ari diren obrak direla eta, irteera eta helmuga Pulpo aurrean izango da, eta paolaldera joan eta etorritik osatuko da lehen buelta txikia.

goofy
 HAUR JANTZIAK
 Amaia plaza, z/g
 Telef. 860959
 ZUMAIA

agustin
 HARATEGIA
 URDAITEGIA
 Itzurun Zuhaitz-bidea, 1
 20750 ZUMAIA Telefonoa: 862430

**CORO
PRIETO**
Esteticista
 Bonifazio Etxegarai plaza z/g
 Telefonoa: 861322



Beste urte betez, Inda Mendi taldeak, mendi astea antolatu du hil honen hasierarako. Otsailaren 5etik 9ra bitartean, hainbat diapositiba emanaldi, eta hitzaldi izango ditugu mendian inguruko gai ezberdinak jorratuz.

Badakizue, botak jantzi eta azaldu Foronda eta Zine inguruetara mendiaz gozatzeraz!!



Iñurrategi anaiak Aita Mari zineman

Otsailaren 9an, ostirala, arratsaldeko 7etan aurkeztuko digute Iñurrategi anaiak beraien "Cho Oyu eta Lhotse" muntaia. Bertan espedizio hontako hainbat azalpen emango dizkigute.



Egitaraua

Foronda kultur etxean
Arratsaldeko 7,30etan

Otsailak 5, astelehena

"Urtaroak mendian"

Imanol Lasa

Otsailak 6, asteartea

"Bhagirathi-espolón SE"

Felipe Uriarte

Otsailak 7, asteazkena

"Transpirenaica en ski"

Poto Gorrotxategi eta
Belen Eguskitza

Otsailak 8, osteguna

"Tepuyes-Salto del Angel"

Adolfo Madinabeitia

izerdi tantak

Eski irteera

Udal Gaztedia Batzordearen babesean, otsailak 24/25 astebururako eski irteera bat antolatu da Candanchura. 24ean goizean goiz irten eta bi eguneko eskiatzeko aukera, remonte, larunbateko afaria eta igandeko gosaria, Candanchu bertan gaua ematea, aseguroa eta Zumaia tik autobusa 9.000 peztan. Bi egunetarako eskiak alokatu nahi badira 1.500 pezta ordaindu behar dira. Apuntatzen diren Zumaia ko gazteei (29 urte bitartean), langabetu edo ikasleak badira, diru laguntza bat emango zaie.

Izenematean 5.000 pezta ordaindu behar dira, Forondan edo Polikiroldegian, eta epea otsailaren 13an amaitzen da. Izena ematean langabetu edo ikasle txartelak aurkeztu behar dira.

Buzeo taldea

Submarinismoa praktikatzeko duten gazte talde bat bildu da Zumaian, hainbat irteera antolatzeko asmoarekin. Lehenengoa hil honen 10ean izango da goizeko 11etan. Zumaitik "Paxai"-n irtengo dira, eta Getariara joango dira buzeatzera. Animatzen bazera 862238 telefonora deitu izena emateko. Parte hartzeko aseguru eta tituluaz gain, ekipoa ere izan behar da.



Basadi Auzategia, 10-A atzean

Telefona: 862228

ZUMAIA

xirula



ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g
Tel. 861705

20750 ZUMAIA



Inpernuko etsaia Zumaiako zinean

**El día de la
bestia (1995)**

Mirindas Asesinas, Acción Mutante eta El Día de la Bestia. Nahiko izan dira korto bat eta bi luzemetraia Alex de la Iglesia, Euskal Herriko (eta Estatuko) zinegileen artean ganberroena eta dibertigarriena bihurtzeko. Azken filme honek, Alex-en lehen luzemetraia kasualitate bat ez dela demostratzen digu. Gutxi dira gai, halako pelikula katxondo eta korrosiboa egiteko.

Acción Mutanteko Bilbo benetan kaotikoa bazen, El día de la Bestiako Madrilan ondoan, herrixka baketsu bat bezela geratzen da. Esan behar da, meritu guztiak ez direla bereak. Berekin lanean ari den lantaldeak zer ikusi haundia du, hasera-haseratik Alex-ekin ari batira lanean. Aktoretaz gutxi dago esateko, denak bikainak, ezin hobeak. Alex Angulok aktore izugarria dela demostratzen digu. Eta Santiago Segurataz, zer? genio bat dela, besterik ez ("El Torrente" luzemetraia egitekotan dago, adi egon).

Ez ezazue galdu pelikula hau, denbora askoan ez dugu eta halako pelikula ganberrorik ikusiko.

Zine kritikak

EGIN

DV

Egunkaria

Los Puentes de Madison

Zuz: Clint Eastwood



El Día de la Bestia

Zuz: Alex de la Iglesia



El demonio vestido de azul

Zuz: Carl Franklin



IRAKURKETARAKO AUKERAK

Hemen dezue Udak Liburutegian aurki ditzakezuen
liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat.
Dastatzen ahal izazazu ahal dezun neurrian

Euskaraz


- Aladin
- Hakuna Matata
- Haur literatura euskaraz
- Radiobiografiak
- Alajaineta
- Hemen datzana da
- Axun
- Opor ezberdinak
- Zoazte hemendik
- Bihotzerre
- Gazteentzako sexu
hezkuntzako gidaliburua

- P. Zubizarreta (ed.)
- Jon Arretxe
- Seve Calleja
- Harkaitz Cano
- Hasier Etxeberria
- Edorta Jimenez
- Abelin Linazisoro
- Xabier Mendiguren
- Patri Urkizu
- Patxi Zubizarreta
- Silvia Ubillos

Gaztelera

- ¡Ojo con los media!
- Diario de Andrés Fava
- El gran robo del tren
- El hombre que susurraba
al oído de los caballos
- Carrington
- La misa de Baroja
- El Quincunce
- El último suspiro del Moro
- París en el siglo XX
- Ser en el ensueño
- Patria

- Michel Collon
- Julio Cortázar
- Michael Crichton
- Nicholas Evans
- Michael Holroyd
- Vicente Molina Foix
- Charles Palliser
- Salman Rushdie
- Julio Verne
- Florinda Donner
- Robert Harris



AIZPURUA

LIBRUTEGIA

Aita-Mari Auzategia, 17
Telefonoa: 861569
20750 ZUMAILA

OPARIK



ERTZ INFORMATIKA

Mendaro Martiela 3

TEL: 14-33-95

Zure INFORMATIKako Denda

- ORDENAGAILU P.C
- INPRIMAGAILU
- CD-ROM
- KRISTALEZKO PANTAILAK
- DISKETTEK

Mozorroak pentsatu!!!

Otsailak 17, larunbata

Arratsaldeko 3,30etan Ludotekan, bazkide guztientzat, IHAUTERI FESTA (mozorrotuta etorri)

Arratsaldeko 6,30etatik 9,30etara 10,30etatik 11,30etara TXIMELETAK txarangaren kalejira herriko kaleetan zehar

Gaueko 11,30etatik aurrera Eusebio Gurrutxaga plazan, LUHARTZ musika taldeak alaitutako dantzaldia.

Otsailak 18, igandea

Eguerdiko 1etik aurrera musika eskolako trikitixa doinuak kalean zehar.


6etatik 9etara TXIMELETAK txarangaren saioa kalez kale.



Otsailak 19, astelehena

Arratsaldeko 5etan Odieta pilotalekuan, TAKOLO, PIRITX ETA PORROTX pailazoekin haur festa, "Kili * Kili" lana aurkeztuz. Sarrera: 200 eta 400 pezeta (helduak). Mozorroturik etortzen direnen artean saritxoren batzuk zozketatuko dira.

IKUSENTZUTEKOA



Martxoak 1ean, Forondan arratsaldeko 7,30etan Javier Fernandezek eskutik, "Afrika Hegoaldea II"

"Bizitza naturalari" buruzko hitzaldi sorta burutuko da Forondan, hilaren 6, 7 eta 8an arratsaldeko 4retan.



Hilaren 2an kandelario...

Iaz egin zen bezela, talde bat San ta Eskean Zumaia eta inguruetakoa baserrietan arituko da kantari egun guztian zehar. Jon Maia eta Ketxus Arzallus izango dira kopletan eta azken saioa herriko kaleetan egingo dute.

Kontzertuak

Otsailak 15, ostegunez, iluntzeko 7etan violoncello kontzertu bat izango da Ubillos musika etxean: RICARDO SCIAMMARELLA musikari argentinarra eskeiniko duena, BACH eta KODALYren obra osatua

Otsailak 3, larunbata, gaueko 10etan Aita Mari aretoan, GOLDEN APPLE QUARTET musika taldearen kontzertu berezia izango da. Kontzertuko sarrera 1000 peztakoa izango da



Antzerki tailerra

Udal Gaztedia Batzordeak, hiru hilabeteko antzerki tailer bat antolatu du. Irakaslea Inazio Tolosa izango da, eta larunbat goizetan, 10etatik 2etara bitartean garatuko da. Ikastarorako izenematea, Foronda kultur etxean egin beharko da, Otsailak 5etik 20ra bitartean; ikastaro osorako matrikula 5.000 peztan.

Landuko diren gaiak: interpretaziorako lehen baldintzak, Gorputzaren adierazpena, Ahotsaren deshinibizioa eta Komedia, besteak beste.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA AUTOAK

Juan Belmonte, 45
ZUMAIA

Telefonoa: 861485
Fax: 143143



ITSASKI
supermerkatua



Urumea kalea z/g
Zumaia

Oskorri, "Landalan" gelditu gabe

Natxo de Felipek orain dela hogeitaka urte Oskorri taldea sortu zuenean, ez zuen espero, bere taldea, Euskal Herriko musika enbaxadore ez-ofiziala bihurtuko zenik. Baina batzuei gutxi gustatu arren, halaxe gertatu da.

Taldeak urte hauetan 15 diska ateratu ditu, eta halako monotonian batean erori beharrean, azken diska honekin, jende guztia txunditurik utzi du. Orain dela urte pare bat, umeei zuzenduriko *Katuaren testamendua* diskarekin, berrikuntza moduko zerbait somatzen zen Oskorri taldean, baina *Landalan* diskarekin aldaketa hauek guztiz baieztatuak gertatu dira. Lan berri honekin talde honen kalitateari buruzko zalantza guztiak erabat ezabatu egiten dira.

Maskarada taldeak ikusleak zirikatzen ditu proposamen zoro eta harrigarriekin

Hamazazpi kanta berri hauekin, badirudi sonoridade aldetik aurrerapauso bat egiten saiatu direla, kanpoko merkatuetan zabaltzeko helburuarekin. Bestetik nabari da oso diska landua dela, erritmo eta estilo



Hainbeste lan egin ondoren, noizbehinka atseden hartu beharra izaten dute.

aldetik oso bariatua. Kanta berri hauetan, beti bezala, folk musika aurkituko dugu, baina baita ere jazz, pop musika eta kantu tradizionalak.

Kantu egileen aldetik esan behar, Oskorri bertakoez aparte, Jon Sarasua bertsolaria eta Patziku Perurena idazlea aurki ditzakegula. "Ilhun nabarrez" kantuan, aldiz, Jon Miranderen poema bat erabiltzen dute kantu hunkigarri batean bihurtuz. "Txirritaren heriotza" kantuan J.I. Ansorena txistulariaren aspaldiko doinu bat moldatzen dute bertsolari mitiko hori gogoratzeko. Bestalde herri kanta batzuk erabiltzen dituzte beraien diskarik harrigarriena betetzeko. Diska honetan taldetik

kanpoko musikari batzuk aurki ditzakegu, hala nola Luis Delgado, Xosé M. Budiño eta momentu hauetan tex-mex musikaren errege den Flaco Jimenez.

Esan den bezala, *Landalan* Oskorriren diskarik onena, ederrena eta berritzaileena da.

Oskorri + Maskarada = Landalan

Diska berriarekin batera Oskorrik bira berri bati ekin dio. Baina oraingo honetan aldaketa batzuk aurki daitezke. Alde batetik kontzertuak ez dira herriko plazetan izango, areto dotoreetan babestuta baizik. Aurretik esan den bezala, soinu berri batzuk

KOSTA

GAS

GAS ETA
KALEFAZIO
INSTALAZIOAK

Etxezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

expert

ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua

expert eta
Repsol-Butanoren
Banatzaile Ofiziala

GURE TXOKOA
TABERNA

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

erabiltzen dituztenez, zer egokiago akustika zaindua dituzten zinema eta teatroak baino.

Beste aldaketa da bira berri honen sorpresa, Oskorri taldearekin batera *Maskarada* antzerki taldea aurki baitaiteke. Antzerki talde honek, Oskorriren doinuaren tartean bere umorea sartzen du. Kantuen tartean Natxo de Felipek egiten zituen azalpenak murriztu egin dira eta tarte horiek teatroaren bitartez bete.

Sonoridade aldetik aurrerapauso bat egiten saiatu dira kanpora begira

Bira berri honetan, taldeak ez dio iraganari begiratu, kantu gehienak berriak baitira. Bestetik *Maskaradak* ikusleak zirikatzen ditu proposamen zoro eta harrigarriekin, esketx egile bikainak direla erakutsiz.

Horrela, Euskal Herriko folk talderik onena eta antzerkigile barregarrienetakoak batzen baditugu, zer lor daiteke: musika ederra eta farrez lehertzeko aukera. Hitz batean: *Landalan*. ■



INSUMISIOA

Egin oihu:



Donibane Lohitzuneko R-Dizkak kaleratzen duen bigarren C.D.a dugu honako hau. Bilduma baten moduan Ipar eta Hegoaldeko 14 rock talde agertzen zaizkigu INSUMISIOA lemapean. Ateratako diru eta etekin guztiak MAIA Iparraldeko elkarte antimilitaristarentzat joango dira, bertako borroka aurrera atera ahal izateko. Iniziatiba garrantzitsu honen bidez, gaur egun Ipar eta Hego Euskal Herriak duen egoera salatu nahi da. Iparraldean 3 urtetan 11 intsumisori egindako 17 epaiketetan 72 hilabeteko zigorrak ezarri baitira. Argudiorik ez zaio falta istorio honi intsumisioak gero eta indar gehiago hartzen ari den gizarte honetan.

Denetik entzun daitekeen C.D. honetan izen famatuak eta gutxiago ezagutzen diren taldeak elkartzen dira. *PiLT*, *Etsaiak* eta *Txingoma 2*

taldeek zuzenean grabatutako kantak eskeintzen dizkigute. *Haurtzarrak*, *Skunk*, *DUT*, *Beltzez* eta *Kashbadek* orain arte ezezagunak ziren melodiak gureganatzen asmatu dute. *Kapten Egurak* eta *King Mafrundi*-renak, aldiz, lehendik dituzten maketetatik atereak dira. Eta azkenik, *Mister Saguak*, *Txakun*, *Anestesia* eta *BAP* taldeek bakoitzak duten disketatik aski ezagunak diren kanta bikainek, osoki asetzen duen eskeintza ematen diote erosle konprometituari.

Barnean euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez idatzitako gutun salatzaile eta interesgarriak, argazki adierazgarriak, abestien letrak eta taldeen kontaktuak eskuratu ahal izango ditugu.



TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 86
Fax. 43 06 37


JEAN

LOREDE NDA

LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK

1 Telefonoa: 860375
20750 ZUMAIA

Silaba gurutzatuak



EZKER ESKUIN: 1.- Eztabaidan jarri. Bizkarzaina. Landare mota. 2.- Mila gramto. 2.- Zira. Daukazu. Bero eman. (Errep.) Ikara. 3.- Erakusgarri aurkezten den gaia. Bukaera. Dago. Bira egin. 4.- Bizkaiko herria. Arrantza tresna. Posta ezaugarria. Agitu aditzaren infinitiboa. 5.- Begiradak. Telebista adierazteko aurrizkia. Pilota. Abelen anaia. Bat. Bizkaieraz, hura. 6.- Musika nota. Xaxatua. Labeen erretako multzo bakoitza. Irri. 7.- Denda. Berrogeitamaika. Nafarroako autoetan. Musika nota. Musika tresna. 8.- Bostehun eta bat. Jainko egyptiarra. Sorta. Erremusinlaria. Sutsu. 9.- Ahitua. Naroa. Ile. Nekatu. 10.- Infusio. Kobazulo. Atzizkia. Bizkaiko ibaia. Nahi. Lehen bokala.

GOTIK BEHERA: 1.- Kanpaia. Hizketaldia. 2.- Talo egileak. Harrapa ezak!. Erregearen inguru. 3.- Baiezatzeko. Errotetako ubide. Zikiro utzi. 4.- Bizkaieraz, dute. Pasmao, zornea. Bihi. 5.- Hodia. Barazki mota. Ukatzeko. (Her.) Zer. 6.- Oreza. Lore ezaguna. 7.- Egile atzizkia. Galtzarbea. Sutondoko katea gakoduna. 8.- Eremu zingiratsua. Lotan. Sodioa. Masurioa. 9.- Da, zuri. Doilorra. Einsteinioa. Egile atzizkia. 10.- Nafarroako autoetan. Egiten du. Beleen kabia. 11.- Berilioa. Txorizoa. Errepika. 12.- Karea egiteko labea. Emaniko xehetasuna. Lehen pertsona. 13.- Izadia. Bat. Rutenioa. Oinarritzko edaria. 14.- Janba, ardien marru. Listua. Elkartasuna. 15.- Detektagailu. Muskulo. Harrapatua.

Negar egiteko txistreak

-Hi, hire amama mekanika al dek?
-Ez, zer ba?
-Ez, autobus baten azpian ikusi diat eta.

-Anton, badakizu txerri bat erosi dudala?
-Txerria? Pisu baten bizi zera ta.
-Bai, han daukat, ohe azpian.
-Eta usaia?
-Usaia aguantatuko du.

Jeroglifikoak



-50 +R


Noiz iritsiko da Koldo?

Erantzuna: **orku**

Umorea

Kokoek BARRENeN (136. zbkia)

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



OHARRAK

Hilak 2, ostirala gaueko 10etan Gazte Batzordearen bilera Oxforden. Larraulgo diapoak ikusgai egongo dira. Azaldu!!

AGURRAK

Hogeitaaalau! Hogeitaaabost!
Hogeitaseiii!
Ba... Ba... Ba...
Baziok. Ha, ha, ha.

Aupa Alaves! San Mames eta Anoetan patatak landatuko ditugu.

Xebaxtian: hi haiz hi tipo maltzurra, zekena eta zikoitza. To eraso bortitza!

C.L.: azkenian batez!

Langileen kaleko enpollonak, ze ai zeate ikasten apunteak edo Egin-Txotxeko programa? Aprobatu eh?

Mofliiii!!! Nun habilek? Zenbat gorri hartu dituk hori idatzi aurretik?? Amakin puntuak irabazi nahian o xe?

Angaua Patxi! Ea noiz hartzen degun *pelotazo* bat elkarrekin. Hil ta Pakia.

Patxi eta Ixiar, ze barruan ez al dago karnabalik o ze? Guri herria mozorrotu digute barra puxketa izugarri batekin. Eutsi gogor!!

Pajarito, sin dramatismos, desalojen.

Kuadrilla segi estudiatzen eta gutxi makustu.

SALEROSKETAK

Eskuko-soinua daukat salgai, erabilitakoa, 120 bajokoa. Interesatuta bazaude deitu 860428 telefonora (Ainhoa) eta prezioaz hitz egingo degu.

Salmenta puntuak

Jesuskoa

Errota (Erribera)

Errota (Basadi)

Errota (Juan Belmonte)

Ogi Berri (Amaiako plaza)

Ogi Berri (Basadi)

Arkupe okindegia

Aizpurua liburudenda

Olano liburudenda

Loitz liburudenda

Alai janaridenda

Nikol kafetegia

Inpernupe taberna

Zalla erretegia

Foto Gar

Arroa Beheko estankoa

Baleikeren atzeratutako zenbakiak FORONDAN eska ditzakezu, 15 eta 16. zenbakiak izan ezik, hauek agortuta baitaude.



Goian Pajarito nagusi, eta aldamenean Pitxon. Hau da pajaro pila!



Institututik Txitxarrora San Juan Boscoren aitzakian

Txitxarron desmadratu ziren institutuko ikasleak, eta baita zenbait irakasle ere, San Juan Bosco egunean. Korbata eta galazko erropa ugari ikusten bazen ere, bazegoen lastozko txapela jantzi zuenik ere.

Pista nagusian bakalaua topera, eta goian musika normala, baina bietan martxa. Irakasleen artean, Sabinaren desmelenea ez zen nolanahikoa izan! Ikasle ohiak ere joan ziren bisitan, eta sekula ikasle izan ez direnak ere bai. Baleikeko korresponsalak ere desmadratu zitzaizkigun azkenean. Ai ama!


Handik bidali zituztenean, herrian jarraitu zuten festa denek ere.

Lehiaketa Goxoa

Ez dira Zipi eta Zape, baina hauek bezain gaiztoak dirudite. Gutxienez bietako baten izena asmatzen dezuenen artean

Txapartegi

Gozotegiak emandako tarta eder bat zozketatuko degu. Horretarako **otsailaren 16a** baino lehen utzi beharko dezu erantzuna, sobre batean sartuta Foronda, ONCEko kabina, Foto Mertxe, Aizpurua liburutegian edota Txapartegin bertan. Zorte on!



Erantzun gutxi izan ziren aurrekoan, erantzuna erraza bazen ere. Bertsolaria, **Joxe Joakin Aizpurua** zen, eta saltakalaria **Migel Aramendi "Errexil"**.

Jasotakoetatik **Oihana Agirre** suertatu zen irabazle. On egin dagizula ba!



Publizitatea - **96**

ADI! ADI! DENDARI, TABERNARI ZAREN HORI!

Zure denda, taberna edota lanbidearen publizitatea egiteko oso bide egokia dezu aldizkari hau: 800 ale, 2.000 irakurletik gora, nahi dezun neurri eta itxurako iragarkia...

Neurri honetako modulu bakoitzaren prezioa:

Hilabete bat:
1.400 pzta.

96 guztia (9 hil.):
11.000 pzta.

Forondara deitu,
enkargoa utzi eta pasako
gera argibide gehiago
ematera.
Eskerrik asko!!